

# OZTAR

Biursari jator Pedro Maria Otaño-ren ilberrian.



**Z**ORIGAITZ REN mende sor gelditu zaizkit biotz t'anima Pello Mari-ren ilberria jakin detanean. Naigabetasun larrigoz gaur ezin bete lezake nere kolkua, aren orotzak ezpada, beste ezerchok ere.

Goitzlarien irudi malda zall ortan igo nairik azi nitzanean Pello Mari izandu zan nere laguntz t'asnas-emallea.

Ari zor diot zerbait argirotzera noizik bein irichi banaiz, ta berari ludi soll ontan igarotako ametsaldi eder gogamentsuna.

Orain..... ¡bizitz ergala!, ekaitza tontor goituenen zale oidan bezela eraso gaiztoaz ekiñ ondoren obiratu du eriotz makur ta zikoitz orrek bersolarien buru zana.

Ura gabe umezurtz dago euskal-erria ta'odoiz eztaírik Maitagarri-ren Erniyo-peko basua.

Bañan illundu arren gure sortitza argitu da margo alayez Bilinch, Arzak, Artola ta beste illezkorren koroiz an goyan dagon uztargia.

¡Izan bitez itz apur oiek nere biotz gañuak bigaltzen dion otoitza!

EMETERIO ARRESE.

Solares 23 Junio de 1910.

